



HAL
open science

Dibarrart-en kantu baten aldaketa

Jean Haritschelhar

► **To cite this version:**

Jean Haritschelhar. Dibarrart-en kantu baten aldaketa. Lapurdum, 2005, 17, pp.281-296. artxibo-00660872

HAL Id: artxibo-00660872

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00660872>

Submitted on 17 Jan 2012

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

DIBARRART-en KANTU BATEN ALDAKETAK

Jean Haritschelhar

Iurretako euskal lore jokoetan, 1891an, aurkeztua izan zen kantu bat, titulutzat *Euskaldunen loriak* zeukana. Hamahiru bertsu, bakoitzak hamahiru silabako (7+6) lau neurtitz, itxuraz beraz Iparraldetik etorria, airea *Adio Euskal Herria* edo *Gernikako arbola*, hona zein diren kantu horren ezaugarriak. Kantuaren lehen neurtitza:

« *Gizon eskualdun guziz ohoragarriak* ».

Hiru urteren buruan, Donibane Lohizuneko euskal bestetako sortu zuten kantu zeingehiagokara, Dibarrart, Baigorriko elizako xantreak, igorri zuen kantu bat *Eskuara, Eskualdunak eta heien loriak* deitua. Kantuak hamabi bertso zeuzkan, bakoitza hamahiru silabako (7+6) lau neurtitzekoa, airea *Adio Euskal Herria* eta lehen neurtitzak haxe zerasan:

« *Gizon eskualdun zahar ohoragarria* ».

Gaia berbera edo bederen idurikoa, lehen neurtitza adibidez, hitz baten aldaera bakarrik dauka *guziz / zahar* eta bi kantuak konparatuz ez da dudarik Dibarrart izan zela Iurretako kantuaren egilea eta, aldaketa zenbait eginik, aurkeztu zuela kantu bera Donibane Lohizunen 1894an.

Sar gaitezen, beraz, konparatuz bi kantuak.

Lehen bertsoak

*Gizon eskualdun guziz ohoragarriak,
Eskuara bizkuntzaren goresle handiak,
Bozten dauku bihotza zuen arpegiak,
Agur derautzuegu, oi gure loriak!*

*Gizon Eskualdun zahar ohoragarriak
Biloak xuri bezein kolore gorriak,
Hitz ederrak mihian, arrai arpegiak,
Agur derautzuegu, oi gure loriak!!!*

Bietan Dibarrartek agurtzen ditu gizon eskualdunak azken neurtitzean hitz berdinekin:

Agur derantzuegu, oi gure loriak.

Aldaketa datza delako gizon horietan. Iurretako kantuan aipatzen ditu euskararen goresleak, gizon handiak, guziz ohoragarriak. Baliatzen dituen hitz ondoekin *-handi, ohoragarri-* sarrera hau laudoriozko sarrera da.

Donibane Lohizunekoan, aldiz, aipatzen ditu zaharrak, euskaldun zaharrak, haien itxura agertuz, oso klasikoa *-biloa xuri, kolore gorri, arpegi arrai, hitz ederrak mihian-*, bainan oso adierazgarria, hots, aitaxi zaharra eta zuhurrara, itzal handiko arbaso ospetsua.

II. bertsoak

*Bizien laudatzeko bethi da denbora,
Aipha dezagun egun hizkuntza eskuara,
Jainkoak igorria Tubalen gogora,
Eta Tubalek bere haur guzietara.*

*Zaharren laudatzeko bethi da denbora,
Aipha dezagun egun mintzaia Eskuara,
Jainkoak igorria Tubalen baithara,
Eta Tubalek bere haur guzietara.*

Ildo beretik doa Dibarrart, bizi diren euskararen zerbitzariak, alde bate-tik, zaharrak, bertzetik *bizien / zaharren* lehen neurtitzean. Bertze aldaketek ez dute garrantzirik, sinonimoak direlakotz *hizkuntza / mintzaia* edo sinoni-motzat har daitezkenak: *Tubalen gogora / Tubalen baithara*.

Orduko sinesteetan dago Dibarrart, osoki zabalduak zirenak Euskal Herrian: Tubal izan zela euskararen sortzailea, Jainkoaren ganik ukana.

III. IV. eta V. bertsoak

*Noeren semea zen Japet deitzen zena,
Eta Japetek Tubal seme bortzgarrena,
Hura da Espainian lehen sarthu zena,
Hartarik da ethorri gure hastapena.*

*Tubalen haurrak ziren Tubaloak deitzen,
Iberak deithuz ere Eskualdunak ziren,
Heiek Banderatzat gurutze bat zuten,
Tubalen izenaren lehen letra baitzen.*

*Tubal Eskualdun zela da segurtamena !
Gurutze harek zuen lau-buru izena,*

*Noeren seme bat zen Japet deitzen zena,
Eta Tubal Japeten seme bortzgarrena,
Hura zen Espainia beretu zuena,
Hartarik da ethortzen gure hastapena.*

*Tubalen haurrak ziren Tubaloak deitzen
Geroxago Iberak erraiten zioten,
Iberak banderatzat kurutze bat zuten,
Tubalen izenaren lehen letra baitzen.*

*Tubal Eskualdun zela da segurtamena.
Kurutze hark baitzuen lau-buru izena*

<p><i>Tubalen haurrek berek eman ziotena, Romatarrek Labarum deitatu zutena.</i></p>	<p><i>Tubalen haurrek berek eman ziotena, Eskuaraz emaiteko hori zen zuzena.</i></p>
--	--

Xehetasunetan sartzen da Dibarrart, Tubalen leinua emanez, Japeten bosgarren semea eta hau Noerena. Horrekin goaz uholde famatu hartara, erakusteko, denbora berean, euskararen zahartasuna, munduko zaharrena (III. bertsoa). Tubaletik Iberoera doa, jakinik garai hartan Humboldt-en teoriak arrakasta handia bazutela.

Iberak deithuz ere Eskualdunak ziren (1891).

Geroxago Iberak erraiten zioten (1894).

Segitzen du bertze ipuin edo leienda batekin :

Tubalen lehen letra T edo Tau grekoa euskaldunek ikurtzat hartu zutela, gurutze forma zuelakotz, San Antonioren gurutzea izanez ere. IV. bertsoan aldaketa guti dago.

Interesgarria da ikustea nola V. bertsoan lehenbiziko hiru neurtitzak berdinak diren xehetasun ttipi bat goiti beheiti : *Gurutze harek zuen / Kurutze bark baitzuen* eta nola osoki aldatu duen azkena. Nork daki nola eta nondik Baigorriko zapatainak eta elizako xantreak ikasi zuen latinezko *-Romatarrek* idazten du neurtitzaren neurriaren zaintzeko eta hori euskal fonetikaren kontra *-labarum* hitzaren erran nahia edo, orduko ideien arabera, kontsonanteak berdinak izanez, lokarri bat sortu zen *lauburu* eta *labarum*-en artean latinek kantabro zaharrei harturik hitza.

Romatarrek Labarum deitatu zutena (1891).

Donibane Lohizuneko kantuan, aldiz, ez da holako sinesteetan sartzen. Uzten ditu alde batera etimologiak edo, hobeki erran, sasi-etimologiak, erakusteko lauburuaren izena, zinez euskalduna zela eta hala amaitzen du bertsoa:

Eskuaraz emaiteko hori zen zuzena.

VI. bertsoa (1891)

Ildo beretik joateko eta hala nola ikusi dugun kontsonanteen berdintasuna *lauburu* eta *labarum*-en artean, halaber jokatu da Dibarrart *Tubal* eta *tabala*-rekin VI. bertsoan.

*Lauburu aintzinean, Iberak ondotik
Muthiri jausten ziren mendien gainetik,*

*Tabala omen zuten Tubalek eginik,
Tabala deitzen baita haren izenetik.*

Etimologikeria ala hitz jokoak? Dena den, edo berak erabakirik edo norbaitek adierazirik gehiegikeria zela, ez da agertzen VI. bertso hau Donibane Lohizuneko kantuan.

VII. bertsoa (1891) eta VI.a (1894)

<i>Jakintsun handienek aihortzen dutena, Eskual hizkuntza dela mintzai ederrena, Nihoiz auzokoekin nahasi ez dena, Hortakotz dei ditake munduko lehena.</i>		<i>Jakintsun handienek aihortzen dutena, Eskuara mintzaietan dela ederrena, Nihoiz auzokoekin nahasi ez dena, Hortakotz deitzen dute munduko lehena.</i>
---	--	--

Aldaketatxo bat edo bertze gora behera bigarren eta laugarren neurtitzetan, bertze biak berdinak direlarik, Dibarrart-ek aldarrikatzen ditu garai hartako ideiak, hartuz euskarak dauzkan kalitateak jakintsun handien arabera: ederra, garbia, lehena. Aspaldiko leloa!

Apologistena, Poza-tik hasiz, Larramendiren gataskak barne XVIII. mendean, ahantzi gabe Sarako Joanes Etxeberri, bere *Laburdiri escuararen hatsapenac* deritzan obran azaltzen dituelarik, bertzeak bertze, kapituluaren tituluetan : *Eskuara garbia da, Eskuara noblea da*, pentsa-molde berak iraunen duela XX. menderaino.

Hobeki ezagutarazteko zein diren kalitate horiek eta zer balio handia daukaten, neurtitzen azken hitzetan agertzen dira indar berezi bat har dezaten: *ederrena* superlatiboan lehenik, aditza *nahasi ez dena* gero eta azkenik hizkuntzaren iraupena, zahartasuna *munduko lehena* azken neurtitzaren azken hemistikioak daukalarik bertzeek ez duten balioa.

VIII. bertsoa (1891) eta VII.a (1894)

<i>Izkribaño batzuen omen da ustea, Eskuarak erdaratik duela hastea, Gaizoak ! iduri du horrek erraitea : Segur Arranoa da Pikaren umea!</i>		<i>Erdi jakintsun baten omen du ustea Eskuarak erdaratik duela hastea, Gaixoa ! iduri dik horrek erraitea, Arranoa dugula pikaren umea!!!</i>
--	--	---

Hemen ere bi kantuetan diren aldaketek ez dute batere ideia nagusia aldatzen. Aspaldiko galdea; nondik datorren euskara, denen ahoetan dagoena

orai arte. Nola munduko lehen mintzaiak ukan dezake erdaratik hasia? Hain dira irigarriak holako ideiak, baliatu behar baita irria eta umorea haien kontra joateko.

Lehenik ironia, ttipitzailea enplegatuz, *Izkribaño* (1891), edo mendra-tzailea *erdi-jakintsun* (1894), gero trufaz beterikako gupidarekin diolarik *Gaizoak* (1891), edo behar den ñabarduraz baliatuz *Gaixoa* (1894), eta azkenik, azken neurtitzean, azken eztenkada arranoaren eta pikaren metafora azalduz, ezin sinetsizko gertakaria –arranoa pikaren umea– jakinik, bertzalde, pika dela hegaztinetan burugabea, ergela, kalakaria. Bertso hau, zinez, bertsolari batena da, dena ironia, dena zizta eta zirrikada, emeki-emeki eramaiten gaituena azken neurtitzeraino, dena gatz eta piper.

1891 : ERREPUBLIKAREN KONTRAKO IDEOLOGIA

Ikus dezagun zer den orduko giroa Frantzia.

1870ean Frantziak galtzen du gerla Alemaniaren kontra. Hori izan da gertakari latza frantses guzientzat, egiazko bihotz-mina bereziki Alsazia eta Lorrena galdurik. Errepublika sortzen da orduan, ez delarik batere onartua Euskal Herrian, Iparraldeko euskaldun gehienak Napoleonen aldekoak edo erregetiarrek izanez.

Orduan sortzen da errepublikaren kontrako literatura bat, kantuetan bereziki, Adema olerkaria buru delarik. Haren kantuek 70eko hamarkadan sekulako arrakasta daukate.

Betiri Santz ezagutua da gosetearen ikurra delakotz. Sinbolo horretaz baliatuko da Zalduby Errepublikaren kontra.

- III. *Betiri Sanx dago oihuka,
Biba, biba Errepublika!
Nahi ez duenari lephoa pika.
Jendea dabilka
Nahasiz trumilka
Umatua libertate ukaldika
Jainkoa ukh-eta ostika
Bainan Betiri ez kitzika,
Aztaparra bezote denek milika. (bis)
(Betiri Sanx - 1874)*

Ez da errepublikazale bakarra Betiri Santz, baditu lagunak, hobeki erran, bera nagusi izanez, baditu, beraz, soldadoak, ilunpean jokatzen direnak, fra-mazonak.

VI. *Betiri Sanxen soldaduak,
Nun nahi dire nausituak,
Framazon, eskuaraz Harginbeltz deituak,
Heien sekretua,
Zin eta patua,
Lurpeta ilhumbetan daude sarthuak,
Jainkorik ez nahiz munduak,
Hek ditu gidari hartuak :
Ez dik gaizki irri egiten debruak. (bis)
(Betiri Sanx, 1874)*

Bi urteren buruan Sarako lore jokoetara igortzen du *Biba Errepublika* deitu kantua Piarres Uxaleguy izen-ordearekin, *Ai, ai, ai mutila* airearen gainean.

Hona nola hasten den:

*Errepublika zer den ez dakienari (bis)
Huna hots nik egia: denek nausi nahi
Dugun errepika: Bib'Errepublika (bis)*

Bainan, dirudienez, Sarara igorrikako kantua jadanik idatzia izan zen; aldaketa batzuk eginik, agertu zen osoki eztitua, kenduz bertso garratz batzuk hala nola

*Liberté, égalité eta fraternité, (bis)
Hirur gezur horiek egiak balire !
Ai, ai, ai muthila,
Egiak balire !*

eta urrunago aipatuz errepublikazaleen artean Kadet Astaphutz bat, Errepublikako president izateko gai gisa azaldua.

Geroxago, 80ko hamarkadan hauteskundeetan borrokatuko dira errepublikazaleak eta eskuindarrak. Orduan, alde batetik, *Le Réveil basque*, Paueko astekaria, Berdoly-k sortzen du 1886an eta handik laster, 1887an, Louis Etcheverryk Baionan *Eskualduna* astekaria. Bien arteko gudukak hiruzpalau hauteskundetan erakusten du *gorrien* eta *xurien* arteko eztabaida eta nola emeki-emeki errepublikazaleak nagusitzen diren bai itsas-aldean eta bai barnekaldean.

Bertzalde, ez ditzagun ahantz Michel Elissamburu edo Frère Innocentius-en obrak bereziki: *Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan*, *Eskualduna* astekariak agertu zituen artikuluen bilduma (1890) eta urte berean *Framazonak*, *bigarren edicionea*, eta *Frantziako hirur Errepubliken istorioa laburzqui*.

Framazonen eta juduen kontra jokatzen da garrakzi Michel Elissamburu, pentsatzen baitu, frantses eskuindarrek bezala, horiek direla Frantziak ukan dituen errepubliken sustatzaileak (1789-1848-1870) erlisionea suntsitu nahiz, apesak soldado igorritz eta hezkuntza bereganatuz.

Ez da harrizkekoa, beraz, Dibarrart jarraitzen baldin bazaie Zalduby-ri eta Michel Elissambururi, *Eskualduna* astekariaren irakurle izanez eta Baigorri biziz elizako xantre gisa, ezagutuz ere hauteskudeetako gorabeherak Berdoly eta Etcheverryren artean.

Lau bertsoan azalduko ditu eskuindar ideiak.

- IX. *Eskualdunek oraino hau dugu loria,
Guzia girixtino da Eskual Herria,
Fedearen zaintzeko bethi atzarria,
Nehork ez baitu hautsi gure lokharria.*

Bertso honetan laudatzen du euskaldun jendea, fermu egon delakotz bere sinesteñ arbasoen ildotik joanez; euskalduna eta fedea osoki lotuak dira eta, berak dioen bezala azken neurtitzean:

Nehork ez baitu hautsi gure lokharria.

Labur bilduz bertso honetan daukagu «euskaldun fededun»-aren itxura.

- X. *Inpiotasunaren erauntsiak ditu
Herrialde orotan jendeak funditu,
Bainan Eskual Herria sendo da gelditu,
Gure mendi gainetan indarrik ez baitu.*

Iduri luke, prediku alkitik, predikari batek erakusten duela uholdea, itun zaharreko uholdearen parekoa. Hitz batekin betetzen du lehen neurtitzaren lehen hemistikioa.

Inpiotasuna, hori da gaitza, gaitz ikaragarria, erlisionaren kontra doana, ideologia osoki galgarria eta denetan zabaldua. Denetan, salbu Euskal Herrian, xoko pollitean, bereziki mendietan, bizi den jende sanoa, garbia, kutsadurarik gabe gelditzen delakotz; zer da Euskal Herria?: lurreko parabisu bat, uharte parekoa, bertze mundu pagano hartarik berezia.

- XI. *Munduan ez du izan Satanen semerik,
Pagano, Arriano ez eta Mairurik,
Gure arbasoetan gaitz egin duenik,
Gurek aithortu bethi Jainko bat bakharrik!*

Hain zuzen, euskaldunak bizi diren parabisu hori betidanik begiratua izana da edozein kutsaduratik. Uhain pareko hitz zerrenda bat botatzen du Dibarrart-ek, lehenik Satan, deabru nagusia, dituen seme guziekin eta gero pagano mota guziak, Arriano, Kristoren jainkotasuna onartzen ez zuena, ahantzi gabe mairuak Euskal Herrian gaindi ibiliak.

Oraiko euskaldun fededuna jarraikitzen zaie arbasoei, lehen bezala orain ere, sanoki bizi baita Jainko bakarraren baitan sinetsiz. Bi aldiz errepikatuz *gure hitza (gure arbasoetan, gurek)* Dibarrartek azpimarratzen du nola euskaldunen historian, belaunaldiz belaunaldi, seinale lehena den fidelitatea, erlisione saildun egoitea eta irautea.

- XII. *Oraiko denboretan zer dugu aditzen?
Framazonak orotan direla ibiltzen,
Gur'arterat sartzera direla ausartzen,
Han hemenka dutela zenbeit ergel biltzen.*

Hauxe da azken kutsadura, hau da egiazko etsaia: framazona. Nola ez da sartuko Dibarrart, hain elizatiar izanez, XIX. mendearen azken laurdeneko eztabaidetan, segituz Adema-Zalduby edo Michel Elissamburu. Badaki ilunpeko jende horiek lanean ari direla Elizaren kontra eta kutsadura berri hori sartzan ari dela, emeki-emeki, Euskal Herrian. Bainan ausarkeria horien kontra badira harresiak. Ez da euskaldun fededuna aldatuko, jende zuhurra egonen da fermu bere sinestean. Ironiaz beterik azken neurtitzak gutiesten du gaitz berria bai jendeetan –ergel batzuk bakarrik dira joak– eta bai herrian, *han hemenka* diolarik.

Euskaldun fededun beti ere.

1894: ZAZPIAK BAT-EN IDEOLOGIA

Nolaz egin du aldaketa hori Dibarrartek hiru urteren buruan? Zer gertatu da anartean?

Ez da dudarik euskararen kontzientzia gero eta zabalduago dela euskaldunen artean XIX. mendearen azken laurdenean. Emeki-emeki, bereziki

Antoine d'Abbadie-ren lore-jokoetan, 1879tik hasiz, Iparraldean eta Hegoaldean ospatzen baitira aldizka, agertzen dira zazpi probintzien aipamenak, hala nola Klaudio Otaegiren olerki batean: *Elkar gaitezen denok Napar-Euskaldunok*, 1881ean Iruñeko jaietan. Halaber Markinako lore-jokoetan, 1883an Martin Hazpandarrak –hala izenpetzen du– aurkezten du *Eskuara eta Eskual Herria maita* deritzan kantu bat. Biltzen ditu Euskal Herriko zazpi probintziak, nahiz deitoratzen duen Arabaren galtzea, galdu baitu hizkuntza.

Hain zuzen Iurretan, 1891an Dibarrartek aurkezten duelarik bere *Eskualdunen loriak* badator bertze kantu bat akrostiko moduan egina *Ama enskarari* (Akrostikoa) *Zazpiak beti bat* tituluarekin.

*Zuben anaiak izango gera bizi artian,
Adierazten dizuet gogoz biyotzetikan,
Zazpiak bada lotsaz ez gaiten geldi atzian,
Pozik alegin egin dezagun aman gatikan,
Izan liteke negar eginaz guregatikan,
Arkitutzia buru makurka baztar batian,
Korri mutilak jarri gaitian danen gatikan,
Barkaziyua eskatutzeko bere aurrian.
Euskaldun danak ama euskara maita dezagun,
Ta biyotzetik Jaungoikoari beti eskatu
Idukitzeko bere onduan gau eta egun
Bere barrunen gaitzik beinere ez dedin sartu,
Ama betiko izango gara zurekin lagun
Ta guregatik irudipenik ez inoiz artu.*

Ez da kalitate handiko hamalauduna, baina azaltzen du giro berri bat, aldarrikatuz goraki eta akrostiko modura *Zazpiak beti bat*.

Iparraldean ere nabari da giro-aldaketa eta bereziki Gratien Adema-Zalduby-ren baitan. Hura bera, Errepublikaren kontra bortizki azaldu zena, orain, hoguei urteren buruan, agertuko da *Zazpiak bat* ospatuz.

Donibane Lohizunen, 1892ko abuztuan herriko etxeak, Goyhenetche medikua alkate delarik, besta euskaldunak antolatzen ditu Antoine d'Abbadie-ren ohoretan. Alabainan euskal letretako mezenas hain ezagutua *Académie des Sciences*-eko president edo buru izendatua izana da eta karia horretara omenaldi bat eskaintzen zaio. Hain zuzen, mintzaldiei ihardesteko xutitu zen Antoine d'Abbadie eta amaitu zuen bere eskerrezko mintzaldia aldarrikatuz: *Zazpiak bat!* Egun hartan kantatua izan zen Gratien Adema-Zalduby-k eginikako olerkia. Titulutzat zeukan *Eskualdunen sort-herriko kantua, chant patriotique basque composé à l'occasion des fêtes internationales*

basques de Saint-Jean-de-Luz (Août 1892). Paroles de G.A. Zalduby - Air labourdin ancien.

Hona zer dion seigarren ahapaldian :

*Laphurdi, Bachenabar, Chubero
Hirur bagare Frantzian ;
Bizkai, Gipuzko, Alaba, Nabarro,
Lau badire Espainian.
Zazpiak bat nahian
Ginauden aspaldi handian.
Oi ! zein liteken ederrago,
Baldin Eskualdun herrian,
Eskualduna librorik balago
Bere zuzenen erdian.*

(*Eskualduna*, 1893/I/6)

Ahapaldi batean bi ideia nagusi agertzen dira: lehena, zazpi probintzien arteko batasuna, bigarrena, herri batu horren askatasun nahia. Hitz laburretan dena errana da.

Azpeitian, 1893an, Adema-Zalduby-k aurkezten du *Gauden Eskualdun* deritzan kantua eta azpi titulua dauka : *Laphurtar kantu berriak*, *Gipuzkoar eta Bizkaitarrek Gernikako Arbolarenak* dituzten gisa berekoak.

Horrek erran nahi du *Gernikako arbola* kantuaren arabera dela Iparraldekoentzat eta, beraz, kantu abertzalea (nahiz hitza ez den oraino sortua).

Bada aitzinagoko kantu bat, titulu berekoa, *Eskualduna* astekarian agertu dena berant, 1893ko urriaren 6an, Azpeitian aurkeztutakoa baino zaharragoa dudarik gabe. Beti bezala badira bien arteko aldaketak, baina arrakasta handia ukanen duen bertsoa jadanik hor dago bere osotasunean bertze batzuk bezala. Falta dena da errepika, Azpeitian agertuko dena :

*Zazpi Euskal herriek bat egin dezagun,
Guziak bethi bethi, gauden gu Eskualdun.*

hamalau aldiz, hamalau bertsoko olerkia baita, errepikatuko dena. Baina lehenbiziko *Gauden Eskualdun*-eko zazpigarren bertsoa lehen bertso gisa agertzen da Azpeitian:

*Agur eta ohore Eskual herriari,
Laphurdi, Basa-Nabar, Zibero gainari,
Bizkai, Nabar, Gipuzko eta Alabari,
Zazpiak bat besarka loth beitez elgarri.*

Hain zuzen, *Eskualdunak* publikatuko du Zalduby-ren kantua 1894ko abuztuaren 24ko alean, Donibane Lohizuneko euskaldun bestak berriz ere antolatuak baititu Herriko etxeak Natalia Serbiako erreginarene eta Antoine d'Abbadie-ren babespean : *Gauden gu Eskualdun - Eskualdun besta eta biltzarretako kanta*. Hastean eta koplartetan denek batean kantatzeko egina da errepika eta kantari batek kantatuko ditu koplak.

Karia hortara antolatua izan da, Lore jokoetan bezala, kantu sariketa bat. *Bi Eskualdun* izenpeturik *Eskualdunac* deritzan kantuak ereman zuen lehen prima. Bi azken ahapaldiek 15. et 16.ek aldarrikatzen dute *Zazpiak bat* fama-tua.

15. *Españan Nabar, Biscai, Alaba, Gipuzco,
Frantzian Bachenabar, Laphurdi, Zubero,
Zazpi herri hauc dire Eskualdunen toki ;
Ez dezake pareric iguzkiac argi.*
16. *Biba beraz goraki, biba Zazpiac bat !
Iduri dute casic zeruco choco bat.
Zazpietaco seme, Escualdunac oro,
Gauden elgar maitatuz orai eta gero.*

(*Eskualduna*, 1894/VIII/31)

Oxaldek eta Dibarrartek parte hartu zuten zeingehiagoka horretan. Oxaldek bere *Hizkuntzetan lehena* kantuaren bosgarren ahapaldian aipatzen ditu zazpi probintziak:

5. *Aiphu emaiten diot Eskual Herriari,
Bachenabarren hasiz Chubero gainari,
Laphurdi Probintzia eta Nafarroari
Gipuzkoa, Alaba, Bizkai ederrari.*

Hona, beraz, zer giro berezian Dibarrartek aurkezten duen jadanik Iurretara igorri zuen kantua bertze ideologia bat azalduz. Euskaldun bestak ziren. Denetarik bazen: dantzak, bertsolariak, irrintzinak, pilota partidak errabotean eta pleka, xixteraz edo esku huska, pastoralak *Aymunen lau semik* eta maskarada. Horiek goretsiko ditu 1894ko kantuan.

- VIII. *Mintzaia eder hunen araberakoak,
Gure jostetak dire pare gabekoak
Euskal jauziak eta pilota jokoak,
Bi mila urthe baino zaharragokoak.*

Ahapaldi honetan biltzen ditu jadanik aipatua duen mintzaiaren inguruan euskaldunen josteta guziak, bereziki dantzak eta pilota.

Horiek dira euskaldunen aberastasuna, horietan datza, hizkuntza lehenik, euskaldunen egiazko nortasuna. Laudatzen ditu haien kalitateak superlatiboz az baliatuz: *pare gabekoak*.

Lehentasuna balinbadaukate edertasunean, lehentasuna daukate zahartasunean, azken neurtitzeko zenbakiak adierazten duen bezala: *Bi mila urthe...* eta gehiago ere: *Bi mila urthe baino zaharragokoak*.

IX. *Buruzagi gorenek ez zuten sinhesten
Berek ikusi gabe Eskualduna zer zen,
Ikusiz dantzan eta pilotan aritzen,
Biba Eskual-herria! oihu egin zuten.*

Ez daiteke ulert bertso hau ez baldin bada kontutan hartzen zer ziren besta horiek, 1892koa nola 1894koa, abuztuan garela eta Donibane Lohizunera etorriak direla *estranjerrak*, hala deitzen baitziren orduan. Haiek ere gomituak dira. Hona zer derasan besta-egitarauaren aitzin solasak *Eskualduna* astekarian:

«Pour la seconde fois Saint-Jean-de-Luz convie les étrangers à voir célébrer les jeux du Pays Basque et pour la seconde fois l'*Eskualduna* leur souhaite la bienvenue.

Ils trouveront dans ce supplément la description des pastorales, du saut basque, et du jeu de paume qu'ils sont appelés à contempler pendant ces jours de fête. Ils y trouveront aussi de courtes et substantielles études sur l'origine du peuple basque, sur sa langue, sur son organisation sociale et familiale, études empruntées à d'illustres savants tels que Humboldt, Le Play, Elisée Reclus.

Voltaire a défini le peuple basque *un petit peuple qui danse au haut des Pyrénées*. Cette ancienne réputation se trouvera amplement justifiée dans les divertissements qui se dérouleront devant les spectateurs charmés; mais il est bon de montrer, par quelques témoignages d'historiens plus graves, que les Basques savent aussi travailler et prier, et qu'ils doivent leur surprenante durée à travers les siècles à une saine constitution sociale.

Non contents de les applaudir dans leurs jeux, nobles étrangers, vous les admirerez alors dans leurs moeurs et leurs traditions et, si vous en sentez le besoin et la force, vous chercherez peut-être à les ... imiter.»

(*Eskualduna*, 1894/VIII/24)

Buruzagi gorenek, haien artean Natalia Serbiako erreginak, eta, dudarik gabe, Donibane Lohizunen zeuden udatarrek ez dakite zer den euskalduna, ezin sinetsia baita haren nortasuna. Erakusten du Dibarrartek zein kartsuki segitzen dituzten dantzariak eta pilotariak eta haien txalo eta oihu beroak. *Eskualduna*-ren aitzin solasarekin bat egiten du eta agertzen du, denbora berean, urgailu pixka batekin zer den egiazki euskaldun jendea.

X. bertsoa da aldaketa ttipi batekin 1891-ko IX.a.

X. *Eskualdunek oraino hau dugu loria,
Guzia girstino da Eskual Herria,
Gure fede hazkarra bethi atzarria,
Nehork ezin hautsi du hunen lokharria.*

Alabainan, aipaturik eta goraiaturik euskara, euskal ohiturak, bereziki dantzak eta pilota, ez zezaken utz fede katolikoa. Izan daiteke euskaradun, izan daiteke dantzari, berdin pilotari, baina oroz gainetik da fededun.

XI. *Mendien bi aldetan, zazpi probintzia,
Zazpiak bat zirela ez da ahantzia...
Zer bihotz min anaien hola berextia,
Eta librotasuna ondikotz galtzia!!!*

Zazpiak bat aipatzen du, baina ez bertze olerkariak bezala. Zalduby batek aldarrikatzen du *Zazpiak bat*-en geroa, biharko ametsa.

«*Zazpi Eskual herriek bat egin dezagun*»

dio errepikan eta zazpi probintziak aipaturik lehenbiziko neurtitzetan, laugarrenean agertzen du bere gogoko ametsa:

«*Zazpiak bat besarka loth beitez elgarri*»

Aditzak erakustera emaiten du zer den Zalduby-ren asmoa, daukan gutizia, nola ikusten duen euskaldunen geroa zazpien arteko besarkadarekin.

Dibarrartek, aldiz, iragana enplegatzen du bertsoan den aditz bakarrean: «*bat zirela*».

Iraganean ikusten du zazpien batasuna, lehen egina zena, orain hautsia. Lehengoaren mina, iraganaren mina azaltzen du azken bi neurtitzetan, bere baitan daukan bihotz-mina eta auhenka deitoratzen du bereizte hori, auhenka ere askatasun galdua. Zorigaitza adierazten du bereziki *ondikotz* hitzarekin.

Segi beza euskaldunak bere jokoekin, izan dadin beti euskaldun fededun, baina ez du Dibarrartek deus ikuspenik geroari buruz, nahiz osoki aldatu den 1891tik 1894ra.

Azken bertsoak 1891 eta 1894

Bien arteko diferentzia ttipia da.

Errepublikaren kontra jokatzeko delarik 1891an zer gelditzen zaio azken bertsoan erraiteko?: otoitza. Hurrei –biharko euskaldunei– mintzo zaie, otoizten ditu atxik dezaten, arbasoek bezala, euskara eta fedea. Hedatzen ari den inpiotasunaren uhainaren kontra, framazonen eta haien deabrukerien aurka, ordu arte tente potente egona baldin bada Euskal Herria, zer bilakatu-ko da bihar? Hortik dator otoitza: egon dadin Euskal Herria, den bezala, arbasoak eredutzat hartuz, lehen bezala orain ere, beti euskaldun fededun, orduko leloari jarraikiz. Otoitz bihotz-hunkigarria, kontserbatzailea.

1894ko kantuan ez da gehiago otoitzik. Hurrei mintzo zaie, baina agintekeran: *ikhasazue*. Manatzaile bilakatu da Dibarrart.

Hurrek, Euskal Herriko hurrek *behar dute* obeditu, hala agindua baitzaie. Aintzineko bertsoetan laudatu ditu Dibarrartek mintzaia, jostetak, euskaldun fedea, deitoratu Zazpien batasunaren haustea, eta orduan, agintari gisa, manatzen die hurrei *ikhas* dezaten, *atxik* dezaten. Berdin kontserbatzailea, baina bertze bizitasun eta kar batekin. Horretan datza bi bertsoen arteko diferentzia.

*
* * *
*

Iurretatik Donibane Lohizunera hiru urte iragan dira, hiru urte labur, baina interesgarriak Euskal Herrian dauden ideologiei begira. Iparraldean Eliza kontserbatzailea da, galdu baititu zituen abantailak, bereziki Jules Ferry-k bozkarazi dituen legeekin. Gizartea laikitzen ari da eta 90eko hamarkadan Frantziako Elizak bihurtu gune bat hartzen du Lavigerie kardinalaren mintzaldia-ren ondotik (1890/XI/12) Errepublika onartzuz. Baina Iparraldean sortzen da sekulako eztabaida Jauffret apezpikuaren inguruan. Eskuindarren indarra nabari da bereziki apeztean: Adema, Michel Elissamburu, Diharassarry... eskuindar ideologiaren zerbitzari gisa agertzen dira eta Dibarrartek eredutzat hartzen ditu.

Denbora berean, *Zazpiak* bat-en ideologia sortzen ari da Euskal Herri osoan, harreman gehiago bada Abbadie-ren Lore jokoei esker, ideologia horren alde eta maisu gisa dago Gratien Adema-Zalduby Dibarrartek mires-ten duena. Baigorriko xantrea, beti kontserbatzailea, moda berriari jarraikiko zaio.

Interesgarriak dira 1894ko azken bertsoaren lehen bi neurtitzak:

*«Haurrak, ikhasazue eskuaraz mintzatzen
Ikhas pilotan eta onheski dantzatzen.»*

Bi neurtitz horiek aurkitzen dira bertze kantu batean aldaketa xume batekin *ongi pilotan ikhas pilota*-ren ordeztu eta arrakasta handia ukan du eta dauka oraino. Kantu horretan aipatzen dira kantu zaharrak kontserbatu behar direnak, sorterreri ederra ezin ahantzia eta aldaketa batekin Donibaneko itsaso bazterra. Kantu horren sortzailea, nahiz ezagutua ez den, Donibane Lohizunekoa izan daiteke.

Entzunik Dibarrarten 1894ko kantuaren azken bertsoa pentsa daiteke gustatu zaizkiola lehen bi neurtitzak eta baliatu dituela. Beraz, Dibarrarten ildotik doa ideologia berarekin.